



Busturiko
Udala



Akta

UDAL OSOKO BILKURA

SESION PLENARIA MUNICIPAL

TOKIA / LUGAR: Udaletxea
EGUNA / FECHA: 2018/11/28
HASIERA / INICIO: 19:00
AMAIERA/FINAL: 19:15

BERTARATUAK / ASISTENTES:

ALKATEA/EL ALCALDE:
Aitor Aretxaga Telletxea

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Naiara Ruiz Badiola (EAJ-PNV)
Iñaki Inzunza Urrutia (EAJ-PNV)
Andoni Elorrieta Arronategi (EH BILDU)
M.ª Ascensión Larrabaster Lezamiz (EH BILDU)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)
Rodolfo Lartitegi Azpitarte (BIT)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL
Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria
DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera



Udaletxean, aipatu egun eta orduan, Alkate jauna eta goian aipatu zinegotziak bertaratuta, Udaleko Osoko Bilkura bildu zen ohiko bilkura lehen deialdian burutzeko. Ruiz andrea gai ordenaren bigarren puntuan batu zen. Saioan ebatzitakoaren fede Udaleko Idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarezek eman zuen.

Alkate Jaunak aginduta hasiera eman zitzaion bilerari zinegotziei nahikoa denborarekin banaturiko gai-zerrendaren arabera, honako akordioetara iritsita:

En la Casa Consistorial de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde, y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió el Ayuntamiento Pleno, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. La Sra. Ruiz se incorporó a partir del segundo punto del orden del día. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

1.- Aurreko saioko akta.-

Osoko Bilkurak aho batez adostu zuen 2018ko urriaren 24ko saioko akta onartzea.

1.º.- Acta de la sesión anterior.-

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó aprobar el acta de la sesión de 24 de octubre de 2018.

2.- Alkatetza Dekretuak.-

Ondorengo alkatetza-dekretuen berri eman zitzaion Udalaren Osoko Bilkurari:

- 44/18, zeinaren bitartez 35/18, 73/18 eta 74/18 espedienteko hirigintzako lizentziak eman diren.
- 45/18, zeinaren bitartez 67/18, 70/18 eta 76/18 espedienteko hirigintzako lizentziak eman diren.
- 46/18, zeinaren bitartez 53/18, 77/18 eta 78/18 espedienteko hirigintzako lizentziak eman diren.
- 47/18, zeinaren bitartez 75/18 espedienteko hirigintzako lizentzia eman den.
- 48/18, zeinaren bitartez 48/18 espedienteko hirigintzako lizentzia ez ematea erabakitzen den.
- 49/18, zeinaren bitartez 72/18 espedienteko hirigintzako lizentzia eman den.

2.º.- Decretos de la Alcaldía.-

El Ayuntamiento Pleno fue informado de los siguientes decretos de la alcaldía:

- N.º 44/18, por el que se conceden las licencias urbanísticas de los expedientes 35/18, 73/18 y 74/18.
- N.º 45/18, por el que se conceden las licencias urbanísticas de los expedientes 67/18, 70/18 y 76/18.
- N.º 46/18, por el que se conceden las licencias urbanísticas de los expedientes 53/18, 77/18 y 78/18.
- N.º 47/18, por el que se concede la licencia urbanística del expediente 75/18.
- N.º 48/18, por el que se deniega la licencia urbanística del expediente 48/18.
- N.º 49/18, por el que se concede la licencia urbanística del expediente 72/18.

3.- Eudelen adierazpen instituzionala Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta.-

Osoko Bilkurak aho batez erabaki zuen EUDELEK "Euskal Udalen Elkarateak" proposatutako hurrengo adierazpen instituzionala onartzea, "Euskararen Nazioarteko Eguna"ren ingurukoa:

"Bizi. Prest.

Halaxe datorkigu euskara bere aurtengo Nazioarteko Egunean. Eta halaxe doa etorkizunerantz. Mingainetan, pantailetan, uhinetan bizi-bizi. Zernahitarako prest.

Etxean bizi-bizi, kalean bezala; bizi-bizi eskolako jolastokian, ikasgelan bezala; lantokian bizi-bizi, lagunarteko solasaldietan

3.º.- Declaración Institucional de Eudel sobre el "Día Internacional del Euskera".-

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó aprobar la siguiente Declaración Institucional sobre el "Día Internacional del Euskera" propuesta por la Asociación de Municipios Vascos - EUDEL:

"Vivaz. Presto.

Así es como se nos presenta el euskera en su Día Internacional de este año. Y así es como se proyecta hacia el futuro. Vivaz en nuestros labios, en las pantallas, en las ondas. Presto para ocupar su espacio.

Vivaz y vigoroso, tanto en casa como en la calle, tanto en el



bezala; bizi-bizi osagilearenean, saltokian bezala; zuzeneko harremanetan bizi-bizi, birtualetan bezala; bizi-bizi kirolean, liburuetan edo zineman bezala.

Prest gaudelako gu, euskal herritar gehien-gehienok, hori horrela izan dadin. Prest gaudelako euskarari gure hitzen he-goak eskaintzeko, ahotik belarrira, bihotzetik bihotzera, burutik burura hegaldadain, samur bezain indartsu. Dakiguna dakigula, mintzatzen ez dena baita euskara eskas bakararra.

Prest gaude, eta gogotsu, euskarak gure ahoan bizi-bizi dantzatzen egin dezan. Gogotsu gaude, eta prest, gure belarrietan atseginez onartzeko euskararen soinua. Dakiguna dakigula, entzuten ez dena baita euskara kaskar bakararra.

Prest gaudelako, eta ezin gogotsuago, euskaraz ere gero eta gehiago bizitzeko. Ingurune guztietan. Eginkizun orotan. Natural-natural. Bizi-bizi.

Euskal hiztunok horretarako egin behar dugun urratsa ez da txikia, ez erraza. Borondate aktiboa eskatzen digu. Erosokeriari izkin egitea eskatzen digu. Sakon errotutako ohiturak aldatzea eskatzen digu. Kontzientzia ahalegin sendoa eskatzen digu. Euskaraz ere herritar izateko aukera egitea eskatzen digu. Eta eskatzen digu, batez ere, euskaldun izatetik euskaldun bizitzera doan tarte gaunditzeko jokaera aktiboa. Eta etengabea.

Euskararen erabilera egin beharreko urrats erabakigarri hau zinez da gizarte-eraldaketa zabal sakona, neurri histori-koa duena, gure gizartearen bilakabidean mugari izango dena. Eta, neurri horretako aldaketa guztien antzera, adostasuna du elikagai nagusi, prestasun eta prestutasunarekin batera.

Euskararen gizarte. Gizartearen euskara

Adostasuna eta batasuna dira, beraz, bidea, euskarak batura behar duelako, ez kenketa; biderketa behar du, ez zatiketa.

Herri aginteak, gizarteak bere dinamika propioetik sorturiko erakundeak, herritar guztiok eta gutariko bakoitza: den-denok gara, aldi berean, euskararen erabilera eraginkorta-sunez areagotzeak ezinbestekoa duen adostasun zibil zabala-ren osagai eta eragile, aldi berean garen bezala haren onuradun eta bultzatzaile, bideratzaile eta babesle.

Baina aktibotasuna, praktikotasuna, da adostasun horren osagarri nahitaezkoa. Aski ez delako, honezkero, aldarrikapen hutsen linboan galtzen diren asmo arranditsuak plazaratzea. Atzean utzi behar dugulako beste inork euskararen alde egin lezakeenaren zain egotea. Lorgarria delako, erabat, euskararen erabilera hazkunde iraunkorraren bidean jartzea, baldin eta herritar bakoitzak euskara ezpainetara eramateko bere erabaki pertsonala gauzatzen badu, hori eta ez besterik delako, azken finean, gizartearen helburu kolektiboa: aukera pertsonalugariren batura.

Eta egin egingo dugu.

patio de la escuela como en las aulas, tanto en el centro de trabajo como en la charla amistosa, tanto en la consulta del ambulatorio como en la tienda, tanto en las relaciones cara a cara como en las virtuales, tanto en el deporte como en los libros o en el cine.

Porque la inmensa mayoría de los ciudadanos y ciudadanas vascos estamos dispuestos a que así sea. Porque estamos dispuestas y dispuestos a dar al euskera las alas de nuestra voz, para que vuele, afable y pujante, de boca en boca, de corazón a corazón, de mente a mente. Sea cual sea nuestro dominio del euskera, porque el único mal euskera es aquel que no se habla.

Estamos dispuestos y dispuestas a que el euskera asome con vivacidad a nuestros labios, y así nos proponemos que sea. Queremos que el sonido del euskera acaricie nuestros oídos. Sea cual sea nuestro dominio del euskera, porque el único euskera torpe es aquel que no se oye.

Porque estamos dispuestos y dispuestas, y lo deseamos profundamente, a vivir cada vez más en euskera. En todos los entornos. En todos los quehaceres. Con la mayor naturalidad. Con plena vitalidad.

El paso que para ello hemos de dar las personas vascohablantes no es pequeño, ni tampoco fácil. Nos exige la voluntad de activarnos. Nos exige zafarnos de la pereza. Nos exige cambiar hábitos hondamente arraigados. Nos exige un enérgico ejercicio de conciencia. Nos exige que optemos por ejercer nuestra ciudadanía también en euskera.

Y nos exige, sobre todo, una actitud activa que ha de movernos a pasar de un mero "ser" vascohablantes a vivir como tales. Y a ser tenaces en el empeño.

Ese decisivo paso respecto al uso del euskera supone una amplia y profunda transformación social de dimensiones históricas, un verdadero hito en la evolución de nuestra sociedad. Y, a semejanza de cualquier otra transformación de tal alcance, se sustenta fundamentalmente sobre el consenso, así como sobre una disposición diligente."

La sociedad del euskera. El euskera de la sociedad

El camino, en consecuencia, es el del consenso y la unidad, porque el euskera necesita sumar, no restar; precisa multiplicación, no división.

Los poderes públicos, las organizaciones surgidas en el seno de la sociedad a través de sus propias dinámicas, todos y cada uno de los ciudadanos y ciudadanas: absolutamente todas y todos somos, a un tiempo, sujetos y agentes del amplio consenso que, ineludiblemente, requiere un eficaz crecimiento del uso del euskera, del mismo modo que somos simultáneamente beneficiarios e impulsores, auspiciadores y tutores de tal consenso.



Busturiko
Udala



Akta

Munduari euskaraz ere helduz, euskararentzat belarria zein gogoa prest izanez, euskara ahoz zein idatziz bizi-bizi eskainiz. Euskarak eguneroko bizitza aberastu dezan; eguneroko bizitzak euskara bete dezan.

Elkarrekin.

Elkarrenganako errespetu osoz, elkarrengandik adorea jasoz.

Elkarri euskara eskainiz.

Euskara bizi-indarrez sendoagotuz.

Bizi. Prest.

Egunero delako euskararen aldia.”

Pero el rasgo sustancial de ese consenso es su carácter activo, unido a su pragmatismo. Porque ya no basta con grandilocuentes declaraciones de intenciones destinadas a desvanecerse en un limbo de vacuas proclamas. Porque debemos dejar de permanecer a la espera de lo que otros puedan hacer en pro del euskera. Porque el crecimiento sostenible del uso del euskera es perfectamente factible, siempre y cuando todos y cada uno de los ciudadanos y ciudadanas sustanciemos en la práctica la decisión personal de llevar el euskera a nuestros labios, puesto que en ello, y no en otra cosa, consiste, en definitiva, el objetivo colectivo de la sociedad: la suma de muchas opciones personales.

Y lo haremos.

Asomándonos al mundo también en euskera, manteniendo nuestros oídos y espíritu prestos para el euskera, haciendo volar en euskera nuestras palabras y textos. Para que el euskera enriquezca nuestra vida cotidiana; para que nuestra vida cotidiana colme al euskera.

Codo con codo.

Con mutuo respeto y determinación compartida.

Ofreciéndonos el euskera recíprocamente y a manos llenas.

Para que el euskera se impregne de vitalidad.

En actitud activa y predispuesta.

Porque todos los días son euskaraldia.”

4.- Bestelakoak.-

Alkate jaunak jakinarazi zuen azken Batzorde Informatzailean ahaztu zitzaioela esatea, ludoteka ikastetxe publikoko musika-eskolak emateko erabiltze aldera egindako bileraren berri eman zuenean, ikastetxeko zuzendaritzak kultur etxeko ekitaldi-aretoko agertokia ere erabili nahi duela, pianoa gordetzeko eta, tarteka, leku handiagoa eskatzen duten zenbait entsegu egiteko.

Hori ikusita, Osoko Bilkurak adostu zuen, aho batez, eskaera onartzea, tarteka erabil dezaten; gainera, erabili nahi duten bakoitzean, jakinarazi egin beharko dute, lokalean sartzen utz diezaieten.

Lartitegi jaunak adierazi zuen, Goikoetxen egurra ateratzeko egindako lanen harira, egur-zatiak Zeleta eta Alarbin artean pilatu direla, eta, ondorioz, kalteak eragin direla bide-zoruan. Alkate jaunak erantzun zion ikusiak zituela kalteok, aurretik ere bazeudela, baina esan zuen egia dela orain handiagoak direla.

Etxebarria andreak esan zuen Kantaguneko txistulariek eta kideek eskerrak eman nahi zizkietela Udalari bazkaltzera gonbidatu zituelako.

4.º.-Otros asuntos.-

El Sr. Alcalde informó de que en la última Comisión Informativa, cuando dio cuenta de la reunión para el uso de la ludoteca como local de clases de música del colegio público, se le olvidó comentar que la dirección del centro escolar también solicitaba usar el escenario del salón de actos de la casa de cultura para guardar en el mismo el piano y realizar, esporádicamente, algunos ensayos que requieren de mayor espacio.

A la vista de ello, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó aceptar ese uso, de forma esporádica y debiendo informar cada vez que se pretenda utilizar para que se les facilite el acceso al local.

El Sr. Lartitegi manifestó que, con motivo de la saca realizada en Goikoetxe, se han realizado los acopios entre Zeleta y Alarbin y se han producido daños en el firme del camino.

El Sr. Alcalde le respondió que ya los había visto, que los daños existían con anterioridad, pero que, efectivamente, han aumentado de tamaño.

La Sra. Etxebarria mostró el agradecimiento de los txistularis y miembros de kantagune por el detalle que tuvo el Ayuntamiento con ellos invitándoles a una comida.



Busturiko
Udala



Akta

Alkate jaunak erantzun zion Udalak eta herriak eman behar dizkietela eskerrak beraiei, parte hartzen duten ekitaldi guztiak izugarri alaitzen dituztelako.

Eta, besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate jaunak eta egiaztatzen dudan Idazkariak sinatuta.

Alkatea/El Alcalde

Aitor Aretxaga Telletxea

El Sr. Alcalde le respondió que, en realidad, era el Ayuntamiento y el pueblo los que estaban agradecidos con ellos, por la animación que dan en todos los eventos en que participan.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Idazkaria/El Secretario,

Víctor-Martín Amparan Álvarez